

Ekitaldi-sorta, Basteroren urteurrenean

Urriaren 3an, hogei urte beteko dira Andoaingo Kulturgunea zabaldu zutenetik. Aste osoko ekitaldi sorta iragarri du Udalak / 3

"Mugitu Andoain"
jarduera fisikoen
aldeko eguna
ospatuko dute
larunbat honetan / 2

Goiatz Salbador,
Partaidetzako
Aurrekontuen
prozesuko
dinamizatzailea / 5



Urnieta, jaietan murgilduta

Etxeberriko jaiak amaituta, Sanmielen zain daude orain herritarrak / 6-13

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2024

Zuk erabakitzen duzu 250.000 euro zertan inbertitu

NOLA PARTE HARTU?

- 16 urte edo gehiago badituzu, aurkeztu proposamen zehatz bat urriaren 6a baino lehen. Andoainerako eskusiboa dena, udal- eskumenekoa eta 2024an gauzatzekoa.



NON PARTE HARTU?



Etxean jasotako txarteltxoa honako guneetan uzten:

Udaletxea (Ataria), Urigain, Kiroldegia, Arrate Frontoia, Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen Zentroa, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte lokala edo Ludoteka.



Online

www.andoain.eus/eu/partehartzea webgunean.



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Asteburuan kirolzaleen txanda izango da. AIURRI

Mugitu Andoain, larunbatean

Kirol-jarduera ezberdinen erakustaldia egingo dute, larunbat goiz osoan, herriko hainbat tokitan

Erredakzioa ANDOAIN

"Mugitu Andoain" ekimenaren helburua jarduera fisikoak eta kirolaren onurak azpimarratu eta praktika horiek sustatzea da. Andoaingo udalaren koordinaziopean, hamaika elkartetan eta taldek hartu dute parte egitasmoaren antolatketan. Zehazki, honako hauexek: Ibili Andoain, Euskalduna mendigoizale taldea, Euskalduna Andoaindarrak futbol taldea, Leizaran eskubaloia, Ganbara saski taldea, Karate Andoain, Txirrindandoin, Soinketa 65+, Andoaingo Txirrindulari eskola, Oskarbi elkarte eta Gazteleku pilota-eskola. Andoni Alvarezek elkarte horien guztien elkarlana eskertu zuen. Agerraldira Gipuzkoako Foru Aldundiako Maria Jose Paredes hurbildu zen, Emakumeak Kirolean egitasmoaren bidez parte hartuko baitute larunbateko ekitaldian. Hitzordu batzuk haur eta gaztetxoei begira daude, eta

besteak, berriz, helduentzat. Adi, eguraldiari. Euriarekin hainbat ekitaldi tokiz aldatuko baitira eta beste batzuk bertan behera geratuko dira.

Hitzorduak

- 09:30** Emakumeen bizikleta-irteera, Zumea plazatik.
- 10:00** Mendi-irteera, Goikoplazatik.
- 10:30** Karate-tailerra, Etxeberrieta plazan.
- 11:00** Nordic-Walking ikastaroa, Goikoplazan.
- 11:30** Ibili Andoain ibilaldia, Goikoplazatik.
- 11:30** Kirol-jokoak, Aiztondo kalean.
- 12:00** Gimnasia erritmikoa, Etxeberrieta plazan.
- 12:15** Dantza lerroan, Zumea plazan.
- 13:00** Aitortza-ekitaldia, Zumea plazan. Ondoren, zizkamizkak izango dira plazan bertan.

Denboraldi amaiera bikaina egiten ari dira junior mailakoak

Aurreko asteburuan, maila bikaina eskaini zuten Zarautzen. Iker Ugartemendiak bigarren bukatu eta mendiko lasterketa irabazi zuen. Ganix Ormazabal, berriz, laugarren helmugaratu zen. Taldeka, Andoaingo Txirrindulari Eskola bigarren sailkatu zen. Larunbatean, Azpeitin, azken aurreko lasterketa dute, eta, igandean, azkena, Antzuolan.



Iker Ugartemendia. ANDOAINGO T.E.



Sutearen irudia. AIURRI HELARAZITAKOA

Sutea, Ama Kandida etorbidean, igande arratsaldean

Igande arratsaldean, aho bete hortz geratu zen bat baino gehiago, irudiei erreparatuta. Ama Kandida etorbidean, hedadura handiko merkatalguneetara eta A15 zein N1 errepideetara daraman biribilgunean kotxe batek su hartu zuen. Antza, kalte bakarra materiala izan zen. Suhiltzaileak hurbildu ziren bertara. Tarte batez, trafikoa eten egin zuten.



Ospakizun galanta egin zuten. ARRAUN

Jauregiren eta Olasagastiren trainerua

Sanpedrotarra Arraun Elkarte datorren urtean Eusko Label ligan lehiatuko da. Onenen artera itzuli da, beraz. Tartean dira eskualdeko hainbat arraunlari: Jon Jauregi andoaindarrak eta Imanol Olasagasti adunarra. Play-offeko sailkapen nagusiko lehen postua Sanpedrotarrak lortu zuen. Bueu sailkatu zen bigarren, eta Lapurdi hirugarren.



Jardunaldien aurkezpen-ekitaldia egin zuten, aurreko astean. AIURRI

Zaintza erdigunean jarri dute

Alzheimerraren Nazioarteko eguneko ekitaldian egin zuten iragarpena Haizea Barandiaran zinegotziak

Erredakzioa ANDOAIN

Agintaldi berriko erronkatarako zaintza da. Eta asmo hori Gizarte Zerbitzuen lansailan lehen-tasunezkoa bilakatuko da. Irailaren 21a Alzheimerrarekin kontzientzia hartzeko eguna da, mundu zabalean. Andoainen ekitaldi-sorta antolatzen da, aspaldi honetan. Filma proiektatu zuten asteartean, eta ostegun honetarako hitzaldia iragarri dute. Udalean ordezkari dute.

ten alderdi guztiek, gainera, Udal adierazpena adostu dute. Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak zaintzaren alorrean lanean dihardutela adierazi zuen, ekitaldiak iragartzeko prentsurrekoan: "Alzheimerraren ondorioak ekiditeko kontzientziazioaren, prebentzioaren, detekzio goiztiararen, diagnostikoaren, tratamenduaren eta doluaren gainean jardutea ezinbestekoa da".

Merkatari eta ostalariei deia

Euskara ikasteko aukera dute Andoaingo AEK euskaltegian. Izen-ematea zabalik dago

Erredakzioa ANDOAIN

Jendaurrean euskaraz aritzeko aukera eskaintzen du Euskara lansailak. Deia zehatza da: "Eman

izena irailaren 22ra arte, Andoaingo AEK euskaltegian, andoain@ae.eus-era idatzita edo 943 59 17 04 deituta".





Iker Apaolaza kultur teknikaria, Txitxu Ruiz jeltzalea, Belen Moreno sozialista, Marta Lasa Kultur zinegotzia (EH Bildu), Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko ordezkaria eta Aritz Alkain sozialista urteurrena iragartzeko agerraldian. AIURRI

XX. urteurrena iristear da Basterora

2003ko urriaren 3an ireki zituen ateak, Andoaingo Kulturguneak. Udal Musika eskola eta erakusketa-gela bere barnean biltzen ditu. Urteotan, bereziki, erreferentziatzko kulturgune bilakatu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Marta Lasa eta Diego Barrasa zinegotziak dira Kultur arloko arduradunak. Agintaldi berria martxan jartzearekin batera, efemeride seinalatuari eutsi nahi izan diote. Datorren urriaren 3an, hogeitun urte beteko dira Bastero Kulturgunea ireki zela, eta, data seinalatua behar bezala ospatzeko, ekitaldi-sorta antolatuta dute. Asteartean egin zuten aurkezpen-ekitaldia, herriko eragileekin martxan dagoen Kultur Mahaia izan eta bihar-munean. Deialdiak ordezkariak duten alderdi politiko guztien babesa jaso zuen, aurkezpen-ekitaldian izan baitziren.

Marta Lasa pozarren agertu zen aurkezpen-ekitaldian: "Zorionekoak gara andoaindarrak eta kulturzaleak. Basterok hogeitun urte beteko ditu, laster. Musika, arte eszenikoak eta arte plastikoak zabaltzeko asmoz jaio zen agertoki berria, eta, ibilbide horretan, helburu hori aise gainditu dela baieztatu dezakegu.

Bastero erreferentzia bilakatu da herrian, baita inguruan ere. Herriko artista andana bertan aritzeaz gain, puntako aktore, abeslari, dantzari, bertsolari eta artista igo da taula gainera".

Hausnarketa, herriko talde eta eragileekin batera

Bezperan egin zuten Kultur Mahaia aipamena eginez edo,

herriko talde eta eragileekin batera hausnarketa egin beharraz hitz egin zuen Lasak, agerraldi berean. "Elkarlanetik, beti ere. Basteroren tokia guztion artean erabakita".

Ekimen-sortaren xehetasunak eskaini ostean, andoaindarrak ekitaldietan parte hartzera gonbidatu zituen. Iristear da efemeridea.



andoainDARRA
euskaraz

Ekitaldi-sorta urriko lehen egunetan

Urriak 2, astelehena.

Erakusketa. Basterok 20 urte: Irigana eta Etorkizuna. Itsaso Mendiluzek antolatuta.

Urriak 3, asteartea.

Urteurrenaren eguna

Kontzertua. Esne Beltza zuzenean. 20:00, auditorioa. 12 euro, ordu gaztea 3 euro.

Urriak 4, asteazkena.

Mahai-ingurua. Bastero 20 urte: Irigana eta Etorkizuna, 19:00, ekitaldi aretoa.

Urriak 5, osteguna

Urteurrenako ekitaldia. Musika emanaldia eta kultur arloko iragarpene egingo da bertan.

Aurkezpen ekitaldian ez zuten detaile gehiagorik eskaini.

Herri ikuspegiko ekimena dela dirudi.

19:00, Plaza Morea.

Urriak 6, ostirala

Kontzertuak. Emanaldiak Zumea plazan eta Goikoplazan, herriko musikarien eskutik.



Xabi Solano, Esne Beltzako kantaria. GOIENA

Esne Beltza, egun seinalatua

Herriko eskaintzari erreparatzearekin batera, Basterok musika arloko talde handi bat gonbidatuko du urteurrenara. Aurkezpenik behar ez duen taldea da Esne Beltza. Disko berria eskuetan, kantu berriak eskaintzen hasiko dira han eta hemen.

Kultur Mahaiaren bilera

Aurreko legealdian abian jarri zen Kultur Mahaiak bilera egin zuten Basteron, joan den astelehenean. Udalaren izenean, Marta Lasa eta Diego Barrasa zinegotziek eta Iker Apaolaza kultur teknikariak partaidetzako prozesua proposatu zuten bertan bildu ziren Andoaingo kultur elkarte eta kulturgileei.

Abendura bitarte luzatuko den prozesu horren xedea, "herriko kultur dinamika orokorraren diagnostiko baloratiboa egitea eta etorkizun hurbilean kultur arloan egin beharreko aldaketak eta proiektuak irudikatzea" da. Zehazki, hiru saio egingo dira. Lehenengoak, diagnostikoa partekatzea izango du xede; bigarrenak, irtenbideetarako ideiak eta proiektuak sortzea; eta azkenik, hirugarrenak, ekintza planaren definizioa hurbiltzea.

Hiru saioak egin ostean, Kultur Mahaiaren saioa egingo dela gehitu zuten udal ordezkariak. "Partaidetzako hiru saio irekien emaitza gisa Andoaingo kulturaren ekintza planerako hurbilpena ekarriko dute, eta iparra iradokiko digun hurbilpen horrek ekar dezake gaur gaurkoz era jakin baten diseinatuta dagoen Kultur Mahaiaren ezaugarriak aldatzeko beharrik". EMUN aholkularitza enpresak gidatuko du partaidetzako prozesua.

IRITZIA

ENEKO EGIBAR ARTOLA ALBAITARIA ETA POLITOLOGOA

Lehen sektorean Basque Country Technology da, soilik, aukera bakarra?

Eta “New social project in The Basque Markets”, merkatuetan bisio berria, zergatik ez?

Oso globala izan den pandemiak ez digu ezer irakatsi. Edo irakatsi behar zienei, gutxienez politikariei eta makroenpresetako buruzagiei, garbi dago ezer gutxi irakatsi diela eta betikoan dihardutela.

Ondorioz, Garapen Jasangarrirako Helburuak (ODS) urte gutxiren buruan interes pribatu batzuen esku geratu direla antzeman dezakegu. Ez ikusiarena egitea bezalakorik ez dago denak berdin jarrai dezan.

Bada, tristea da guztia, oso tristea. Baina, tristeena, pandemiak elikagaien, klima aldaketaren eta ekonomiaren arteko erlazio berri bat eskatu zigula eta politikariek eta distribuzio handietako agintariek betikoan jarraitzen dutela, alegia. Betiko interes ekonomikoaren menpe egongo diren mezuak eta markak babesten jarraitzen dute. Ez dago berrikuntzarik ekonomian, ezta merkatuan aritzeko eran ere; berrikuntzak, soilik, teknologiarako dituzte: haragi sintetikoekin eginiko jakiak, intsektuekin eginikoak... Food 4 Future bilgarriaz estaliak eta, tartean, noski, Europako diru-funtsak, diru-laguntza publikoak...

Distribuzio handian – politikaren babesarekin– non-nahi ikus daitezke kontsumitzailea zeharo nahasten duten “sasietiketak” elikagaietan. Pandemia aurretik baino lotsagabeago dabiltzala esango nuke, beren bideari eta “negozioei” inortxok ere inolako mugariki ipini gabe baitabilta. Uda honetan, Marokon ekoiztutako Espainiako tomateak eguneroko ikusi izan ditugu distribuzio handian. Baina, sasietiketak edo sasimezuak ez daude soilik kanpokotzat jotzen ditugun



Argazkia 2023ko abuztuan aterea da Andoainen, elikagaien distribuzio kate handi batean. Begiratu prezioei. Zergatik halako desberdintasuna prezioan? Naturalenak, onenak, jatorrizkoenak zein dira? Zein marka edo mezu dira baserritarrei gehien ordaintzen dietenak? Hau da, kontsumitzaileek zer informazio jasotzen dute?



2030ko Garapen Jasangarrirako Helburuen (ODS) ildoan, normala da Poloniatik Euskal Herrira (Andoainera) okela ekartzea?

kateetan, “etxekotzat” dugun distribuzio kate handi horretan antzekoak ikusi daitezke, eta ez da ezer gertatzen.

Politikariek, multinazional horien buruek elikagaien erronka deitzen diote, baina zer da elikagaien erronka? Elikagaien soberakinak aspaldian mendebaldean arazo bilakatu direnean, nola da posible botere ekonomikotik eta politikotik, teknologiak eskaintzen dituen aipaturako aukera berriak munduko gosetearen amaierarekin erlazionatzea? Badago gizarte osoari adarra jotzeko modu traketsagorik?

Nire iritzian, elikagaien soberakinak eta munduko gosetea txanpon beraren bi aurpegiak dira. Zeren, txanpon hori elikagaien merkatua eta politika multinazionalen kontrolpean egotea deitzen baita. Erronka, beraz, elikagaien merkatu hori

“sistemarentzat”, bidea bera da; bide berriek kolokan jartzen baitute bere osotasunean hain errentagarria ez den eta oso kutsatzailea den erredua.

Aitzitik, komeni zaie betiko interes ekonomikoaren menpe egongo diren mezuak eta markak babestea. Horixe zen eta da elikagaien sektorearen gakoa. Hau da, mezuak kontrolpean edukitzea, edo elikagaien mezua fribolitatez, arinkeriaz estaltzea. Modu horretan, lehen sektoreaz inongo ezagutzarik, inongo enpatiarik ez duten marketin-enpresak politikariek aurkeztu dieten “framing”aren gidoia jarraitzen ari dira lehen sektoreko ekoizpena gizarteratzeko unean, lehen sektoreko eragileei kalte itzela eginez. Kalte handia, lehen sektorea ekonomiaren anekdota gisa ikusten dutelako eta ez, pandemiak erakutsi zigun moduan, ekonomia eta ereduak irauli eta ekonomia justuagoa sortzeko erreminta gisa.

Bestalde, gaur egun enpresa publiko-pribatuak, unibertitateak... Ongi-etorri antzekoa egiten ari zaizkio botere ekonomikotik sortu den eta “framing”a ofizial bilakatu den mezuari. Mezu ofizial hori, gainera, modu eraginkorren gizarteratu dela esan daiteke. Horretarako, izan ere, nahikoa da unibertitate teknologikoetan, enpresetan, ekonomian eta politikan... filosofia, etika, moralak eta gogoeta sozialak aldentuta edukitzea.

Ondorioz, irakaskuntzan materia horien apurrik lantzen ez denean, hooligan moduko teknikariak non-nahi agertzen dira abelgorrien metanoari egozten erru guztia. Horixe, fribolitatea eta arinkeria non-nahi. Baina, fribolitatez eta arinkeriaz aritzeak badu beste funtzio bat, “gauzak” estaltzea.

Adibidez, Brasilgo kapitala duen eta Gipuzkoan kokatuko den hanburgesa sintetikoak ekoiztuko dituen enpresari dagoeneko Eusko Jaurlaritzak 4 milioi euro eman dizkio diru-laguntzetan. Nahiz eta hanburgesa sintetiko horien ekoizpena Europar Batasunaren barruan ezbaian dagoen, nahiz eta herrialde asko produktu horien kontra legeak egiten ari diren (Europar Batasunekoak barne), nahiz eta Estatu Batuetan ekonomikoki eta sozialki porrot galanta izan den hamburger sintetiko horien ekoizpena... Eusko Jaurlaritzak dagoeneko 4 milioi euro eman dizkio diru-laguntzetan Brasilgo kapitala duen enpresari.

Era berean, gogoratu behar da Bizkaiko eta Arabako herrialdeek urteak daramatzatela hiltegitik gabe eta, adibidez, Laudioko hiltegi berria egiteak 2 milioi euroko kostua izango zukeela; baina, horretarako ez dago dirurik, ez dago diru-laguntzarik. Bestalde, hamburger sintetikoaren notiziaren aurrean, boterearen inguruan dauden entitate eta pertsonak ez dutenean gogoetarik egiten, ezta erantzukizunik hartzen ere, ezinbestean denak izan behar du arina, azalekoa, funtsik gabea; baita politikara hurbiltzen diren pertsonak ere, arinak, azalekoak behar dute izan. Ezin, bestela.

Auzi horren guztiaren gainean, mundu akademikoaren aldetik, unibertsitetetik, lehen sektorean aritzen diren hainbat enpresa publikotatik gogoeta, moralitate eskasa ikusten dute nik. Framing ofiziala inongo eragozpenik gabe onartu eta, badirudi, Euskal Herriaren xedea, soilik, Basque Country Technology-ren txapela jantzi eta mundu osoan ibiltzea izango dela etorkizunean.

PROTAGONISTA



Goiatz Salbador da dinamizatzailea. AIURRI

"Hartu hitza! egitasmoan 16 urtetik gorako guztiek parte har dezakete"

GOIATZ SALBADOR PARTAIDETZAZKO AURREKONTUEN EGITASMOKO DINAMIZATZAILEA "Hartu hitza!" goiburuarekin, partaidetzazko aurrekontuen edizio berrian murgildu da Andoain. Udalak sustatuta, proposamenak aurkezteko aukera dago egun hauetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN Andoaingo gaztea dinamikaren edizio berria bideratzen ari da. Jakina denez, Andoaingo Udalak 2024ko aurrekontuen 250.000 euroko partida herritarrek egindako proposamenetara bideratuko du. Andoaindarrek, beraz, parte-hartze zuzena izan dezakete gogoko duten ekimenak

gauzatzeko proposatuz. Beti ere, udalaren eskumenen barruan sartzen bada.

Hartu hitza! prozesuaren dinamizatzaile-lanetan ari zara. Irailaren 18an hasita herritarrek botoa emateko aukera dute. Nola doaz egun lehen egun hauek?

Astelehenean hasi zen lehen fasea, urriaren 6ra bitarte luza-

tuko dena. Andoaingo hainbat txokotan, hautes-ontziak eta eskuorriak ipini ditugu, eta herritarrek bertan aurkeztu ahal izango dituzte beren proposamenak. Aurten, gainera, informazio-postu bana ipini dugu Zumea plazan –irailak 16– eta Merkatu plazan –irailak 18–, eta, larunbat honetan, Goikoplazan

izango naiz goizeko 11:00tan hasi eta eguerdiko 13:00ak arte. Lehen bi saioetan, jendea hurbiltzen ari zaigu. Eta, bestalde, ekimen honetan, 16-18 urtekoek ere parte hartu dezaketenez, aurkezpen-errondari ekin diogu Batxillergoko geletan.

Aurtengo dinamikaren aurkezpenaren berrikuntza horiek azpimarratu zenituzten.

Bai, halaxe da. Egitasmoa herritarrei gerturatzea erabaki genuen, eta, horretarako, ezinbestekoa da aurrez aurreko aukerak eskaintzea. Gertuko tratua eskaini behar diogu gazteari, eta informazio-postura hurbiltzen den herritarri. Egitasmo honen atzean norbait badagoela ikus dezaten. Parte-hartzeari garrantzia eman nahi diogu, eta horregatik ipini ditugu informazio-puntuak udalerrian, egun jakinetan. Eta, horrekin batera, ikasgeletan sartu gara, herriko ikastetxeekin izan dugun lankidetzari esker. Haien harrera oso ona izaten ari da, eta hori eskertu beharrean nago.

Informazio-puntua jarri duzun bi egunetan, zein izaten ari da herritarren erantzuna?

Eskuorria jaso dute, baina haietako askok ez dakite oso ondo zer den. Azalpenak eman eta, gero, pentsakor jartzen dira. Beste batzuk garbi samar dute eta eskuorria bete eta hautesontzira eramaten dute. Hainbat kasutan adibideak eskaintzen dizkiet, zer proposatu daitekeen hobeto ulertze aldera.

Argi dagoelako herri mailako proposamena izan behar duela. Herrian bertan eta udalaren eskumenekoa den zerbait, alegia.

Udal eskumenekoa izan behar du eta hori gogorarazi behar dugu. Proposamen batzuk udalaz gaindiko eremukoak iristen direlako. Herrian bertan egin edo hobetu daitekeen ideia bat izan daiteke.

Proposamen zehatzik jaso al duzu? Zer da gehien aipatzen dena?

Informazio-puntua jarri dugun aldiro, ideiak oso argi dituen jendea hurbildu zaigu. Udal li-

**"LARUNBAT HONETAN
INFORMAZIO-POSTUA
IPINIKO DUGU
GOIKOPLAZAN,
11:00-13:00 ARTEAN"**



Parte-hartze prozesua ikastetxeetan aurkezten ari dira, egunotan. AIURRI

burutegia horietako askoren ahotan dago, gehienbat, gazteen aldetik. Helduen aldetik, Zumea inguruan adinekoentzat eguneko zentrua irekitzeko proposamen asko egin dizkigute.

Komeni da lehen fasean gaudela gogora ekartzea. Proposamenak egiteko garaiz gaude. Aukeraketa ondoren etorriko da.

Lehen fasean gaude, datorren urriaren 6ra bitarte. Ideiak jaso eta batzorde teknikoak aztertu ostean, aukeraketa bat egingo da. Azaroan, aukeraketa egingo da, hainbat proposamenen artean. **Zer nolako esperientzia izaten ari da zuretzat?**

Andoaindik kanpo bizi izan naiz azken lau urteotan. Herrira itzuli eta egitasmo honetan murgiltzean, harreman zuzena izaten ari naiz herritarrekin eta herriko gaiekin. Interesgarria izaten ari da, egia esan. Izaten ari naizen esperientziagatik, oro har, aurreko ediziotan parte hartu duen jendea jakinaren gainean dago. Baina, bestalde, antzematen dut badagoela udal ekimena urrun samar ikusten duenik, euren parte hartu ezingo luketen zerbait bezala. Egitasmo honetan, 16 urtetik gorako herriko guztiek parte har dezakete. Garrantzitsua da hori azpimarratzea. **Interesa antzematen duzu, baina galdera asko mekanikari buruzkoak izaten direla aipatu izan didazu.**

Eta hori dinamika berri samarra den adierazle da. Urteen poderioz, herritarrek egitasmoa barnerrazten joango dira, eta mekanikari buruzko galdera gutxiago izango da.

**"URRIAREN 6RA
BITARTE
PROPOSAMENAK
EGITEKO AUKERA
DUTE HERRITARREK"**



San Juan plaza jendez lepo betetzen da, jaien hasieran. AIURRI

Ospakizunez beteriko bost egun aurretik

Prest dira urnietarrak San Miel jaiei harrera egiteko. Hilabete luzetako antolakuntzanaren ostean, bost eguneko egitarau oparoa antolatu dute herriko elkarteek nahiz eragileek. Hemen dira Sanmielak, hilaren 27tik urriaren 1era

Erredakzioa URNIETA

Udako oporren bueltan, ez da horren neketsua izaten errutinara buelta urnietarrentzat, izan ere, ospakizun-giroan murgiltzen da herria irailaren amaieran. Hilaren 27tik urriaren 1era, zer gozatua, dantzatua, abestua, jana eta edana izango da Urnietan, hemen dira-eta San Miel jaiak. Hori guztia posible izateko, buru-belarri izan dira antolaketa-lanean herriko makina bat elkarte eta eragile, aurreko hilabeteetan, egitaraua gora-behera, ezker-eskuin josteko eta osatzeko. Iaz berreskuratu zituen festak Urnietak, osasun-krisiari aurre egiteko neurriak direla eta, hiru urtez geldirik egon ostean, goia jo zuten joan den iraila amaieran

ospakizunak Urnietan. Horrela izango da aurten ere, antza, gogoak soberan baitituzte herrikideek.

Hilaren 27an, asteazkenarekin, emango zaio hasiera egitarauri, hain justu ere, iluntzeko 19:30ean Miela Marizulotik jaisten den momentuan bertan ekingo zaie festei. Horrela, kalera aterako dira herritarrak, haurretatik hasi eta adinekotara bitarte, guztiei begirako jaiak izango baitira: kale-antzerkia, ikuskizunak, musika-kontzertuak, herri bazkariak, kalejirak, buruhandiak eta erraldoiak... Etxeberriko festak igarota, eta iraileko asteburuetako hitzorduez gozatuta, prest dira urnietarrak, jaiei ongi-etorria emateko.



Sanmiel jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



salestarrak
MAGALE · URNIETA



Eneko Zulaika, Ana Pozas, Jorge Segurado, Ainhoa Ostolaza eta Xabier Arenaza aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Urnieta, jaietarako prest

Sanmielak izango dira irailaren 27tik urriaren 1era bitartean. Bada prentsurrekoa egin zuen Urnietako Udalak astelehenean, festak iragartzeko eta egitarauaren berri emateko

Erredakzioa URNIETA

Berezia da irailaren amaiera urnietarrentzat, herriko jairik garrantzitsuenak ospatzen dituelako herriak: hilaren 27tik urriaren 1era bitarte, Sanmielak izango dira Urnietan. Bada, festa-giroa iragartzeko, prentsurrekoa deitu zuen Urnietako Udalak astelehenean eguerdian, udaletxean. Bertan izan ziren, besteak beste, Jorge Segurado Urnietako alkatea, Ainhoa Ostolaza Berdintasun zinegotzia eta Ana Pozas Kultur zinegotzia.

Eskaintza zabaleko egitaraua izango da aurten, herriko elkarrean artean osatua, Urnietako Udalaren elkarlanarekin. Eragileei begirako esker hitzak izan zituen Seguradok, "programatutako jarduerak prestatzen eta diseinatzen buruturiko lanagatik eta egindako ahaleginagatik, beraien ekarpenik gabe ezinezkoa litzateke eta jaiak modu honetan antolatzea".

Mende erdiko ibilbidean, txupinazoa botako du Danbolin

Txistulari Bandak, Urnietako Udalaren esanetan, "urte hauetan guztietan buruturiko ekarpenagatik eta Urnietako kultur ondarea azaleratzeko eta aberasteko erakutsitako konpromisoagatik". Horren erakusle dira, besteak beste, "Eteneta", "Mulisko" nahiz "Idiazabal kalea" piezak. Ildo beretik, Urnietaren sorreraren 400. urteurrenerako abesti bat ere eratu zuen bandak "Urnietan 400", baita herria hizpide antolatutako hiru antzerki musikatu ere: "Marizulo", "Urnietan 59" eta "1936". Hala, taldeak herriari emandako azken uzta, berriz, Saroberen 25. urteurrena gogoan hartzeko izan zen, "Soinuen Begiradak". Hori horrela, behin su-ziriak botata, eta, Mielari ongi-etorria emanda, bost egun luzeko programa zabala izango dute herritarrek, janarekin eta edanarekin, festez gozatzeko.

Kultur-eskaintza zabala

Pozasek hartu zuen hitza prentsurrekoan, Sanmieletan egon,

go diren hitzorduei errepaso azkarra egin asmoz. Musikari eutsi zion, lehenik, pisu handia izaten baitu festetan: "Ikuskizun mordoia egongo da, denetatik eta denentzat. Gainera, herriko taldeek protagonismo handia izango dute". Askotariko musikageneroz gozatzeko aukera izango dute bizilagunek, txosnagunean (kiroldegi parean) eta San Joan plazan: TOC, Lappa, Raimundo el canastero, DJ la Txiringa, Nemux, Neomak...

Kirol-ikuskizunak

Kirolek, halaber, pisu handia hartzen dute jaietan. Irailaren 28an esku-pilota jaialdia izango da udal pilotalekuan. Biharamunean, Nerea Arruti urnietarra zuzenean ikusteko aukera egongo da, aizkoran eta harria jastzen. Beñat Telleriarekin osatuko du bikotea eta Xabat Olaizolarekin eta Oihana Fernandez de Barrenarekin neurtuko dituzte indarrak. Malen Etxeberrriak, bere aldetik, bakarkako

saioa gauzatuko du aizkoran. Jaietako azken egunean, pilota-partidak nagusituko dira, izan ere, XIII. Willy Etxeberrria zesta puntako memoria eta XXVII. Martin Mujika Erremonte jaialdia izango dira. Azken horretan, Ansa II, Goikoetxea V eta Loitegi urnietarrek jokatu dute, Azpirozekin batera.

Haurrei begira

Irailaren 28a izan ohi da haurrentzako Sanmielen egunik garrantzitsuenak, "umeen eguna" ospatzen baita. Aurten, protagonismo berezia izango dute, Irati Aierdik eta Asier Montese, alkate txiki izendatu baitituzte: egun horretan, ekojolasak izango dira 4 hilabetetik gorako haurrentzat Egape Ikastolan goizean eta arratsaldean, buruhandi eta erraldioen kalejira, dantza-festa baita haurren kontzejupeko esku-pilota txapelketak finalak ere...

Jai parekideen alde

Prensurrekoan, Udalaren ize-nean, jai parekideen aldarrikapena egin zuen Ostolaza zinegotziak: "Aisialdiaz eta jaiaskatasunez eta berdintasunez gozatzea pertsona guztiek duten

eskubidea da. Jaiak gune segurua eta gozagarria izan behar dute bertan parte hartu nahi duen edonorentzat. Ez da inolako eraso matxistarik edo arrazistarik onartuko, eta horien aurrean irmotasunez erantzun go da beharrezko neurriak hartuz". Horrela, informazio nahiz arreta-puntuak izango dira:

- Irailaren 27an: San Joan plazan, 18:30-21:30 bitartean.
- Irailaren 29an eta 30ean, Zaldundegiko plazan, 23:00-04:00 bitartean.

Trafikoan, aldaketak

Aurten, txosnak kiroldegiaren aurrean kokatu dira, eta, ondorioz, irailak 20-urriak 3 bitartean trafiko-mozketa izango da Pintore kalean. Aparkalekuak, berriz, dagoeneko ixten hasiko dira. Idiazabal kalean, Zaldundegi plazaren paretik Goimendi pareraino dagoen errepidea, berriz, irailak 29 eta urriaren lehena bitartean egongo da itxita. Txupinazoa eta Mielaren agurrean, bestalde, Etxeberriko biribilgunetik San Joan plaza-rako bidea itxita egongo da. Azkenik, barraken ondorioz, Errekaldoko aparkalekuak ixten hasi ziren aste hasieran.

Urriak 1, 14:00etan

SANMIELETAN BERTSO - KANTU BAZKARIA

2023

URNIETA

TXOSNA GUNEAN
Musikariak: SOINUDOLEA
Bertsoariak: UNAI ETA ENAIT AGIRRE GOIA ANAIK

BAZKARIA 30:
Bazkari-bordien erantzukizuna
BIKAIN (2023) KAFETEGIAN
Irailaren 27a arte

Antolatzailea: KANTAZAUN TALDEA
Laguntzailea: URNIETAKO UDALA



SANMIELAK URNIETAN 2023

OSTEGUNA 21

19:00 Mendi Film Festibala, Saroben. Zanpatuzen eskutik, Udalaren laguntzarekin.

LARUNBATA 23

09:00-10:00 Kompak Sporting Oiartzungo Arkalen, Santa Kruz Elkarteak antolatuta.

12:00 Teresa Amuategiren omenezko parkearen inaugurazio ekitaldia, Maximo Yurramendi kaleko parkean.

20:00 Bertso-saioa plazan, Poxta Zaharrek antolatuta. Eli Pagola, Andoni Rekondo, Eñaut Martikorena, Iker Ormazabal. Gai jartzailea: Irati Zinkunegi.

IGANDEA 24

10:00 Extremadurako produktuen dastaketa, plazan.

13:00 Donostiako Virgen de Guadalupe koru eta dantza taldearen emanaldia plazan. Euriarekin, Saroben.

19:00 "Bagoiaz" antzezlan, Barrexerka taldearen eskutik, Saroben.

SANMIELAK 2023

ASTEAZKENA 27

16:30 Gazte Ginkana 11-16 urte birtartekoentzat, Zubitxo plazan, Gaztelekuak antolatuta.

18:00 Urnietako Udalak 2023ko haur jaioberriei jaietako zapia jarriko die Kontzejupean. Agurra, Egape dantza taldeko kideen eskutik.

18:30 Erraldoi eta buruhandien kalejira Plazido Muxika plazatik.

19:00 Txosnen irekiera.

19:30 Mielaren jaitsiera, elizako kanpandorretik. Txupinazoa Txanbolinen eskutik.

20:00 Rockalean elektrotxaranga, plazatik abiatuta.

20:00 Sardina-jatea txosnagunean.

23:00 DJ Karlos Salvatrutxa-ren saioa txosnagunean.

OSTEGUNA 28

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

10:30 Alkate Txikien izendapena udaletxean: Irati Aierdi



Bazkaria, hilaren 30ean, Txosna batzordeak antolatuta. Tiketak Matxo, Kantoi eta Zaldundegi tabernetan salgai daude. AIURRI

Ziaurritz eta Asier Montes Roman. Egapek Belauntxingoa dantzatuko du.

11:00 - 13:00 / 16:00 - 18:00

Plisti Plasta ekojolasak 4 hilabetetik gorako haurrentzat, Egape ikastolako frontoi txikian. Haurrentzat puzgarriak eta jokoak Egape ikastolan.

17:00 Bingoa, Elkarteen Etxean, Denda Berrik antolatuta.

17:30 Haurren Kontzejupeko esku pilota txapelketaren finalak.

18:30 Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira San Juan plazatik Plazido Muxika plazara, dultzaineroak lagunduta.

18:30 Eskupilota jaialdia udal pilotalekuan.

Olatz Ruiz / Ainhoa Ruiz. Paul Ojuel, Iban Azanza / Aitor Mendizabal, Imanol Odriozola.

19:00 Plazan "Dantza festa": Lorea Intxausti, Asier Burguete eta Joanes Etxebesteren parte hartzearekin. Euriarekin Egape Ikastolan.

20:30 Pintxo lehiaketa txosnagunean.

23:00 Nahi ta ezin, Lappa eta DJ Albabarruna herriko taldeak txosnagunean.

22:30 Diskofesta: Nemux plazan. Euriarekin Egape Ikastolan.

OSTIRALA 29

09:30 Diana Txanbolin taldearen eskutik.

11:00 Meza Nagusia. Udal korporazioa udaletxetik elizara joango da, Alkate soinua doinuak lagunduta.

12:30 Txanbolin Txistulari Bandari Udalaren omenaldia, udaletxeko Batzar Aretoan. Agurra Egape dantza taldearen eskutik.

13:00 Txanbolin Txistulari bandaren kontzertua plazan, Egaperekin batera. Euriarekin Saroben.

14:00 Adinekoen bazkaria Oianumen.

17:00 Herri kirolak Egape ikastolan. Aizkoran eta harrijasotzen, bikoteka: Beñat Telleria eta Nerea Arruti / Xabat Olaizola eta Oihana Fernandez de Barrena. Aizkolaria bakarka: Malen Barrenetxea.

17:30-19:30 Haur jolasak plazan. Euriarekin, Egapeko frontoi txikian.

17:30-19:30 Agirre taldeak girotutako dantzaldia, Elkarteen Etxean.

18:00 Jokoak, Txosna batzordeak antolatuta.

21:00 Afaria Txosna batzordeak antolatuta. 22:30-23:30 Neomak plazan. Euriarekin, Egape Ikastolan.

00:00 - 02:30 DJ LaMia Mari plazan. Euriarekin Egapean.

23:30-03:00 Ameba, Leizeak, Rodeo eta DJ The North Tech txosnagunean.

**HOTEL
HK10
HOTELA**

943 33 73 57
info@hotelk10.com

GORA URNIETA!

GORA SANMIELAK!



LARUNBATA 30

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

11:00 2-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako bizikleta jardunaldia.

12:00 Aperitiboa Elkartearen Etxean.

12:00 Poteoa Txosnagunetik abiatuta.

12:00-14:00 Kuadrillen kalejira Pasai txarangarekin.

14:00 Paella jatea, plazan. Berdeak taldeak eta Etxeberri Plazako auzo elkarteko kideek antolatuta. Tiketak Guria eta 2KNen salgai. Euriarekin Egape ikastolan.

14:00 Bazkaria Txosna batzordeak antolatuta, Tiketak Matxo, Kantoi eta Zaldundegi tabernetan salgai.

14:30 Emakume kuadrillaren bazkaria.

16:30 Neu taldearen kontzertua.

17:00 Kuadrillen kalejira Pasai txarangarekin.

17:00-18:00 Plazan, kale antzerkia. "Troia", Kamikaz Kolektiboaren eskutik. Euriarekin, Egapen.

18:00-20:00 Musika plazan: Radio Rebelde Covers. Euriarekin Egapen.

18:30-20:30 Urdanborren irteera Kiroldegitik.

19:00 Elizan Urdanbor danborradaren saioa.

19:00 Malatxo txaranga txosnetatik abiatuta.

23:30-03:00 Kontzertua: Odei, TOC, Raimundo El Canastero, DJ Latxironga.

00:00-01:30 Urdanbor danborradaren bigarren irteera Idiazabal kaletik.

00:00-03:00 Tsunami Orkestra. Euriarekin, Egapen.



Paella jatea, plazan. Berdeak taldeak eta Etxeberri Plazako auzo elkarteko kideek antolatuta. Tiketak Guria eta 2KNen salgai. AIURRI

IGANDEA 1

09:30-11:30 Bolo txapelketa.

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

12:00 Salestarrak Magale haur danborrada.

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Batzokiaren eskutik, Munduko ardoak Kontzejupean.

14:00-18:00 Bertso bazkaria: Imanol Kamio eta Agirre anaiak kantuan ariko dira.

Tiketak 2KNen salgai, irailaren 27a arte.

17:30 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan. Euriarekin, Egapen.

17:30-19:30 Erromeria: Iratzar.

18:00 Dantzaldia. Agirre taldea Elkartearen Etxean.

18:30-20:30 Willy Etxeberria memoriala, zesta punta jaialdia. Martin Mujika Erremonte Jaialdia: Ansa II, Azpiroz / Goikoetxea V, Loitegi.

18:30 Rukula txosnagunean.

19:30 Dantza-Soka plazan.

20:00 Mielari agurra, zezen suzkoa.

22:00 Txosnen itxiera.

AIURRI.EUS

Jaien jarraipena webgunean: Albisteak, argazki-bildumak, bideoak.

SANMIEL JAI ZORIONTSUAK PASA!

BIZI TOKIKO MERKATARITZA,
BIZI URNIETA!

Eraso matxistei lekurik

EZ!

Jaietan ere aske maitatu, aske gozatu.

Urnietako udala

URNIETA. 2023KO
SANMIELAK

Arne Fernandez



Alba Quel, Olaia Ruiz, Naroa Artetxe eta Alba Cabrera, joan den urteko Sanmieletan. DJ ALBABARRUNA

“Lotsarekin dugun harremana lantzeko aukera ematen digu Albabarrunak”

DJ ALBABARRUNA URNIETAKO DJ-AK

Herriko jaietan hutsik egiten ez duen taldea da DJ Albabarruna. Aurten, ostegun gauean izango da, txosna-gunean

Jon Ander Ubeda URNIETA

Hemen datoz Sanmielak, eta taldearen bosgarren urteurrenean, oholtza gainean ariko zarete ostegunean.

2018an hasi ginen, modu inprovisatuan, Poxta Zaharren hamabosgarren urteurrenean. Harrezkero, hariari tira egin eta makina bat herritan izan

gara, gertu nahiz urruti: Hernani, Bergara, Aretxabaleta, Zumarraga, Zestoa... Dena dela, erosen Urnietan sentitzen gara, etxekoez inguratuta. Aurten, Sanmieletan, ostegunean izango gara, eta oso pozik gaude, egun oso berezia baita guretzat, herri guztia elkartzen baikara txosna-gunean.

Zuen play-zerrenda aurretik al dago erabakita? Zenbatetan ez da bete aurreikusitakoa?

Ordu luzeko abesti-zerrenda daukagu, estilo eta genero asko uztartuta. Aldez aurretik, bilerak egin ohi ditugu, koreografiak entseatu, ikuskizuna pixka bat egituratu eta, lauon artean, kantuen zerrenda pentsatzeko. Nor-

malean, gehienbat, hasiera eta bukaera pentsatzen ditugu, eta, tartekoa unean-uneke giroa irakurrita erabakitzen dugu. Alegia, oso gutxitan betetzen dugu alde aurretik erabakitakoa. Dena dela, malgutasuna edukitzea egokia dela iruditzen zaigu, hau da, mesedegarria zaigu alde aurretik gutxieneko egitura bat zehaztuta edukitzea. Horren gainean, ordea, giroaren arabera erabakitzen joan ohi gara, eritimo mantsagoetatik hasi, pixkanaka intentsitatea igotzen joan eta, bukaeran, “eztanda” egiteko.

Zeintzuk dira hutsik egiten ez duten kantuak? Kantuen aukeraketan, ba al dago mugarik? Edozein kantu jartzeko prest zaudete?

Aipatutako bilera horietan, koreografiak asmatzen eta entseatzten ditugu. Horiiek, oro har, beti egiten ditugu, ez dute hutsik egiten, besteak beste: Orain (Hemendik at), Played a live (Safri duo), Señoras bien (Las Bistecs)... Esan bezala, kantuen aukeraketan, oreka bilatzen ahalegintzen gara: euskarazko betiko abesti arrakastatsuei tokia ematen diegu, baina beste hizkuntza eta genero batzuetako doinuak sartzen ditugu: cumbia, reggaettoa, musika elektronikoa... Zerrenda itxia da, abestiak banan-banan deskargatzen ditugulako. Beraz, jendeak eskatzen dizkigun kantuak gure aukeraketa luze horretan ez badaude, ez ditugu jartzen. Hurrengo ikuskizunei begira, kontuan hartzen ditugu proposamenak.

Bateragarriak al dira musika jartzea eta mozkortzea?

Edariari neurria hartuta igo ohi gara oholtza gainera. Are gehiago esango dizugu, batzuetan, ura edaten dugu, soilik (beste batzuetan, ez). Goizeko ordu txikiak arte egon ohi gara gora eta behe- ra, ezker eta eskuin dantzan, eta horrek nahikoa motibazio ematen digu gau osoa irauteko. Behin, esaterako, Hernaniko San Juanetan, ekainaren 23an, zazpi orduz egon ginen musika jartzen, gauerdiko 00:00-etan hasita. Hori bai, behin ikuskizuna amaituta, leher eginda gaude!

Gaueko 23:00tan eta goizaldeko 03:00tan gauza bera edaten al duzue?

Batzuetan, ura edaten dugun bezala, beste askotan, ez...! Garagardo eta ardo zaleak gara, eta, normalean, horrekin hasi ohi gara. Orduak aurrera egin

ahala, konbinatuak ere edaten ditugu.

Lagunen eta ezagunen artean ari- tzeke lotsagabe samar izan behar da?

Lotsarekin dugun harremana lantzeko aukera ematen digu Albabarrunak. Ez da erraza izaten oholtza gainera igo, zoroarena egin eta, tarteka, barregarrikeria egitea. Ahalduntzen lagundu gaitu urte hauetan guztietan, jendaurrean, taula gainera igotzea ez baita lan makala. Asko babesten dugu elkar eta begirada konplize pila izaten ditugu “ikuskizunean”. Elkarren lagun handiak gara, kuadrilla-koak. Parranda-giroan dantza egitea izugarri dugu gustuko eta Albabarrunak deshinibiziorako aukera ematen digu, guri, baina baita gu ikusten edo entzuten ari direnei ere. Dantza- zalea ez den jendeak ere saltoka bukatzen du, epaiak alde batera uzteko aukera ematen dugulako.

Aipatu beharra dago, gertukoak, lagunak eta etxekoak gure zo- rramen horren oso zaleak direla; babes handia ematen digute beti.

Biharamunean, ajeaz gain, zer bes- telako zehar-kalte izaten dituzue?

Maiz, fisikoa bezain emozionala izan ohi dugu ajea, intentsitate handiko momentua delako guretzat oholtza gaineko uea. Hala, nekatuta bukatu ohi dugu show-a. Bestalde, pentsa, axu- betak ere eduki izan ditugu!

Zer da jaietan gehien gogoko du- zuena?

Herriaz beraz eta elkarren arteko konpainiaz gozatzeko aukera izan ohi dugu urnietarrek San Miel jaietan. Herritik kanpo bizi denak ere aitzakia ederra izan ohi du Urnietara itzultzeko. Ostegun gaua da horren erakusle, herri osoa biltzen baikara txosna-gunean. Aurten, guri dagokigu gaua girotzea... Prest?

"INTENTSITATE HANDIKO MOMENTUA DA GURETZAT OHOLTZA GAINEKO UENA"

"ORDU LUZEKO ABESTI-ZERRENDA DAUKAGU, ESTILO ETA GENERO ASKO UZTARTUTA"



“Ez dut irudikatzen eragile gabeko San Miel festarik”

MADDI IZTUETA TXOSNA BATZORDEA

Hainbat hilabeteko antolaketa-lanaren ostean, egitarau oparoa antolatu dute herriko eragileek Sanmieletan



Arrakasta handiko hitzorduak antolatzen dira urtero txosna-gunean. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Egitarau aberatsa antolatu duzue txosna-gunean. Zein eragilek osatzen duzue Txosna Batzordea?

Aurten, Txosna Batzordea hainbat eragilek osatu dugu. Urtero bezala, oraingo honetan ere bertako parte gara Poxta Zaharreko kideok. Era berean, Asкета ere batzordean dago, urte

luzez txosna-gunearen bueltan ibilitako eragilea. Elkartasun Ekimenaren kasuan, oker ez banabil, joan den urtean jarri zuen txosna estreinakoz; bada, aurten, errepikatu egingo du. Bide beretik, Gazte Koordinadora Sozialista Txosna Batzordearen parte da, baina bere barra propioa izango du.

Azkenik, lehenengoz, Jardun Koordinakundeak presentzia izango du txosnan. UKERI dagokionez, ez du barra bateratuan parte hartuko, baina buru-belarri izan da lanean gurekin, eta ogitartekoak jarriko ditu postutxo batean.

Herritarren gozamerako parada izan ohi dira Sanmielak. Aldez aurreko antolaketa handia dakar horrek, ordea.

Bi arrazoi nagusirengatik erabaki da, aurten, festak Txosna Batzorde gisa antolatzea. Sanmieletan, guztiok dugu gustuko ondo pasatzea, baina lan handia dakar bost eguneko egitaraua prestatzeko. Orain arte, Poxta Zaharre hartu du, gehienbat, ardura. Bertako kide naizen aldetik, urtetik urtera, geroz eta zama handiagoa sentitzen genuen: herriko festak amaitu eta gutxira hasten ginen hurrengo urtekoak antolatzen. Ondorioz, oso erreta iristen ginen elkartekideok; are gehiago, urte osoan, beste hainbat jardura antolatzeko energia kentzen zigun horrek. Gauzak horrela, Txosna Batzorde gisa funtzionatzeko proposamena luzatu genien gai-

nerako eragileei, ardurak guztion artean banatzeaz gain, presentzia handiagoa izan dezaten beraiek ere egitarauan.

Elkarbizitzarako espazio bihurtu zaizue Txosna Batzordea. Era berean, baliagarria al da elkar ezagutzeko zein saretzeko?

Erabat. Sanmieletan, nor bere kabuz aritzen zen lehen. Asko jota, zerbait behar izanez gero ipintzen ginen harremanetan, festak hasi baino bi aste lehenago. Hortik harago, ez genuen bestelako erlaziorik. Aurten, hasieratik, lan-taldetan antolatu gara, eta, horietan, eragile ezberdinetako jendea nahastu gara. Orokorrean, oso esperientzia positiboa izan dela iruditzen zait, beste interes edo iritzi batzuk kontuan hartu baititugu.

Elkarlanaren erakusle, txosnako barra bateratua ipiniko duzue.

Beste herri batzuekin alderatuta, Urnietan, ez da inoiz egon gatazka handirik eragileen artean. Hari horri tiraka, txosna elkarrekin jartzea pentsatu genuen, batetik, logistikoki, hobeto egokitzen zelako txosna-gune espaziora, eta, bestetik, lana banatzeko aukera ematen zuelako. Pixkanaka, barrako txandak osatzen ari gara. Gonbidapena luzatzen diegu herri-

tarrei parte hartzeko, giro ederra edukitzen dugu eta. Bide beretik, edozein motatako laguntza ere ongi-etorria izango da.

Egun berezia da urnietarrentzat osteguna. Aurten, moztarro-gaueko gaia “Olinpiar Jokoak” izango da. Gomendiorik ba al daukazu inspiratu ezinik dabilenari laguntzeko? Urtero, bi asteren faltan, burua estutu ohi dugu gaia pentsatzen. Kirol asko barne biltzen dituzte Olinpiar Jokoek: atletaz, igerilaria, argi-zuzia... Nork bere esparrua eraman dezake gaia, gainera. Ideia guztiak ongi-etorriak izango dira.

Irudikatzen al duzu txosnarik gabeko Sanmielik?

Egia esan, ez dut irudikatzen eragile gabeko festarik. Esentzia galduko lukete jaiak, txosna-gunerik eta herri-eragilerik gabe. Udalak antolatutako ekimen-sorta lirakeke Sanmielak. Herriko festak eragileok egiten ditugu. Gure lana ez da hasten eta bukatzen Sanmieletan, hau da, urte osoan, Urnietan hitzorduak antolatzen ditugu. Hortaz, edozein momentu da ona, bai Poxta Zaharrera, bai beste eragile batera hurbiltzeko. Besoak zabal-zabalik hartzen dugu jendea!

Etzeratze kolektiboak jaietan

Itaiaren deialdia: "Egungo errealitatean etxera seguru eta lasai iristea ez da beti aukera bat emakumeontzat. Hau bermatze aldera antolatu ditugu etzeratzeak. Elkarteko lekua Pintoreko portxea izango da, txoznagunetik gertu geratzen baita, seinalizatua egongo da. Egun bakoitzean hainbat hitzordu ipiniko dira bertan. Edozein emakumek etxera bidean lagunduta joan nahi badu, zehaztutako orduan bertaratzearekin nahikoa da, arduradunak prest egongo dira elkarrekin bidea egiteko. Bolondres bezala txandetan parte hartu nahi izatekotan ere, idatzi 688816333 telefono zenbakira".



SANMIEL JAI
ZORIONTSUAK
IGARO
BERDINTASUNEAN,
ASKE ETA
EUSKARAZ



MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Gora Urnietan!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com



Talentua eta ausardia, biak behar dira! AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Gozotik igaro dituzte festak Etxeberri plazan: ostiralean hasita eta igandera bitarte, aste-buru osoko egitaraua antolatuta zuten auzoko elkartekideek, adin guztiei begirako eskaintza bermatuta.

Eguraldia lagun, txupinazoa-rekin ekin zioten festari. Jendez bete zen plaza, auzoko festei ongi-etorria emateko. Apar-festa egon zen ondoren, eta, bainujantzia soinean, dantzan eta saltoka aritu ziren haurrak. Iluntze partean, ostera, Bossa Jazz Blues Urnietako musikaldeak girotu zuen gaua.

Dianak ireki zuen, berriz, larunbateko egitarau oparoa. Txistuaten eta danbolinaren erritmopean bildu ziren bizilagunak plazan. Hala, ginkanaz eta Super H-k antolatutako jolasez disfrutatzeako aukera izan zuten haurrek nahiz gaztetxoek. Tripa bapo bete zuten, ondoren, Euskal Parrillaren eskutik eta, bazkalostean, bingoan aritu ziren luze, harik eta lehiaketen txanda iritsi zen arte: batetik, tortila-patata txapelketa egin zuten, eta, bestetik, "Etxeberri Talent". Azken horretan, beren gaitasunak eta trebeziak jen-

**URTEZ URTE,
EGITARAUA
ABERASTEN JOAN
DIRA ETXEBERRIKO
FESTETAN**

Iraileko festei ongi-etorria

Etxeberriko festak izan ziren joan den asteburuan, ostiraletik hasi eta igandera bitarte. Adin eta gustu guztiei begirako eskaintzarekin ospatu ditu elkarteak, bosgarrenez, auzoko jaiak. Sanmielei lekukoa ematea tokatzen da orain



Jende askoren aurrean zuzenean aritzeko aukera izan zuten gaztetxoek, larunbat iluntzean. AIURRI

Jaien balorazioa

"Inozko harrera onena izan dute Etxeberriko festek, aurtan. Oso balorazio positiboa egiten dugu: eguraldia lagun, giro ona bildu zen plazaren bueltan. Festarako gogo biziz zen jendea, jarrera parte-hartzailearekin. Horrela, atek zabalik ditugu, eta jendea animatu nahi dugu gurekin batera elkarlanean hitzorduak antolatzeke. Tokiko saltokiei ere eskerrak ematen dizkiegu, babesagatik zein laguntzagatik".

daurrean erakusteko aukera izan zuten, plazaren bueltan, bizilagunek. DJ Flowing-ek itxi zuen larunbata, uda sasoiko kanturik ezagunen laguntzaz.

Igandean ere zer ospatua izan zuten auzokoek. Txirristra irristakorrean gora eta behera ibili ondoren, Nimu zirko-antzerkiarekin itxi zuten hiru eguneko egitaraua.

Tokikoei bultzada emateko borondate argia

Festak antolatzen dituzte bosgarren urtea da aurtengoa. Antolakuntzaren esanetan, urte urte, egitaraua, pixkanaka aberasten joan da. Era berean, geroz eta jakin-min handiagoa piztu du, urnietarren artean, auzoko festek; bada, aurtan, jendez beteta egon da hiru egunez plaza.

Garrantzi handia ematen diote tokikotasunari egitaraua osatzean, bai plazaren bueltako saltokiei, bai Urnietako eragileei. Herriko festa-giroa beste espazio batzuetara zabaltzeaz gain, auzotarren arteko harremanak estutzeko asmoz sortu ziren Etxeberriko festak. Hala, beste horrenbeste urtetan eta gehiagotan egon daitezela festak!

**GEROZ ETA JAKIN-MIN
HANDIAGOA SORTZEN
DUTE ETXEBERRIKO
FESTEK URNIETARREN
ARTEAN**



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI




AIURRI



AIURRI

ETXEBERRIKO
J A I A K

BIDEOAK, ARGAZKI-BILDUMAK...
AIURRI.EUS



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 21

URNIETA Jabekuntza Eskola
Emaginen irakurketa tailerra, Pepa Bojoren tailerra, Garbiñe Larrearen hitzaldia, zineforuma... parte hartu nahi duten emakumeek 29a baino lehen eman beharko dute izena.
Jarduerak Lekaion izango dira.

URNIETA Ikus-entzunezkoak
Mendi film jaialdiaren onena Urnietan ikusteko aukera.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN, URNIETA Euskara
Ikasturte berrian euskaraz trebatzeko hamaika aukera gertuko euskaltegian.
AEK euskaltegiak.

ANDOAIN Zozketa
Salkin elkarteak antolatuta, erosketa egiten duten erosleen artean 2500 euroko balioa duen bidaia zozkatuko da.
Parte hartzeko epea: Urriak 13.

OSTIRALA 22

ANDOAIN Ikuszirkus
"Latas", D'Click konpainiaren eskutik.
22:00, Bastero.

LARUNBATA 23

ANDOAIN Informazio-puntua
"Hartu hitza!" egitasmoaren aurkezpen-ekitaldia.
11:00-13:00, Goikoplaza.

**ANDOAIN Aitortza ekitaldia herriko kirolariei**

"Mugitu Andoain" egitasmoaren barnean jarduera fisiko ezberdinak aukeran izango dira, goiz osoan. Jardunaldiari amaiera emateko, denboraldiko kirol lorpenen aitortza-ekitaldia egingo dute.
Irailak 23, larunbata. 13:00, Zumea plaza.

URNIETA Irekiera-ekitaldia
Teresa Amuategiren omenezko parkearen inaugurazio-ekitaldia. Sanmielen atariko ekitaldia. Jaien egitarau osoa 8-9. orrialdeetan aurki daiteke.
12:00, M.Yurramendi parkea.

URNIETA Bertso saioa
Poxta Zaharrek antolatuta, bertso saioa: Eli Pagola, Andoni Rekondo, Eñaut Martikorena, Iker Ormazabal. Gai jartzailea: Irati Zinkunegi.
20:00, San Juan plaza.

IGANDEA 24

ANDOAIN Euskalduna
Mendeurrenaren harira, atzoko eta gaurko areto futbolekoen partida.
11:30, Allurralde.

URNIETA Extremadurako jaia
Extremadurako kultura, Urnietan.
10:00, Produktuen dastaketa.
13:00, Koru eta dantza emanaldia.

URNIETA Antzezlanak
"Bagoiaz" antzezlanak.
19:00, Sarobe.

Abiatu da futbol denboraldia eta, laster, eskubaloia

Eskubaloi taldeak aurrendenboraldiko azken txanpan murgildu dira, irailak 30-urriak 1 asteburuan ekingo baitiote lehiaketari. Senior mailako UKE eta Leizaran mutilak elkarren aurka ariko dira, lehen jardunaldian. Gipuzkoako lehiak harago, Andoaingo senior mailako neskak Euskadi mailako ligan ariko dira.


Futboleko denboraldia abiatu da Euskalduna eta UKErentzat. Gorengo mailan, Euskaldunak 3-1 garaitu zuen Bergara B. Urnietak, aldiz, 0-3 galdu zuen Ostadarren aurka. Jubeniletan, gorengo mailan, Urnietak 4-0 galdu zuen Trintxerpen. Kadeteek ere 0-2 galdu zuen, UDAREN aurka.

Euskaldunako ohorezko jubentil mailakoek 5-1 galdu zuten Ordizian. Bigarren jardunaldian Ubitarten ariko dira, Elgoibarren aurka.

Europar nagusi


Garikoitz Mujika La Salle Berrozpeko ikasleak urrezko domina lortu du Diseinu Mekanikoaren mailan. Europa mailako lehiak, hamalau herrialdeetako parte-hartzaile gauditu ditu. Sekulako lorpena da, Polonian eskuratutakoa. Argazkian, bidaide eta prestatzaile izan den Aitor Iburguren irakaslearekin batera.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Todos los nombres de Dios
Irailak 23, lar. 19:30, 22:00.
Irailak 24, ig. 17:00, 19:30.
Irailak 25, ast. 19:30, 22:00.

Vacaciones de verano
Irailak 23, lar. 17:00.
Irailak 24, ig. 17:00.



SINOPSISIA

**Todos los nombres de Dios**

Zuzendaria: Daniel Calparsoro. **Aktoreak:** Luis Tosar, Inma Cuesta, Nourdin Batan, Ismail Hsaini Ammi, Roberto Enríquez, Fernando Cayo, Antonio Buil, Patricia Vico... **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Akzioa. **Iraupena:** 105 min.

Akzioz eta emozioz beteriko filma

Atentatu baten ondoren, Santi (Luis Tosar) bahituztat hartzen du Hamzak, bizirik atera zen terrorista bakarrak. Ezustean paperak trukatu ditu eta Santi giza bomba bihurtu da Madrilgo Gran Vian lehergailuz betetako txaleko batekin. Daniel Calparsoro zinema

zuzendariaren berriena Andoainera iritsiko da, asteburu honetan. Akziozko filmak egiten eskarmentu handia pilatu du eta, oraingoan, berme guztiak eskaintzen dituen Luis Tosar da aktore nagusia. Inma Cuestak ere paper garrantzitsua du filman, poliziaren rolean.





AIURRI

Urrats erabakiorra

Tokiko Gobernu batzordeak iragarri duenez, "Ama Kandida etorbideko eremuan 97 etxebizitza, trasteleku, garaje eta lokal eraikitzeke lizentzia eman du Andoaingo Udalak. Hala, berehala hasiko dira aipatu etxebizitzak eraikitzen". Prozesu luze, zail eta katramilatsua izan da, eta badirudi behingoz errealitate bilakatuko dela.




AIURRI

1837ko irailaren 14a gogoan

1837ko irailaren 14an gertatu zen Andoaingo Gudua, lehenengo Karlistaldian. Efemeridearekin bat eginez, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Jon Unanuek argibidez eta xehetasunez beteriko ibilaldi gidatua egin zuen. Goikoplazan eta Kale Nagusian geldialdiak egin ondoren, antzeppen txikia egin zuten Unanibia zubian.



AIURRI



ARITZ LEKUONA

Urnieta, zikoinen pausalekua

Aurreko asteburuan, Hernanin eta Urnietan barrena, dozenaka zikoina pausatu ziren. Migrazio-prozesuan, Urnieta pausaleku izan zuten asteburuan. Irudia, ezohikoa denez, deigarria bezain ikusgarria zen. Aritz Lekuonak eta Aiurrik asteburuan zabalduko argazki ezberdinetan ikus daitekeenez, kopuruan ugari ziren bertatik igarotako zikoinak.



ARITZ LEKUONA

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Xabat eta Galder Ormaetxea Lasa
Zorionak, Xabat eta Galder! Aurten 10 urte borobil. Segi beti bezain alai eta mundial pasa zuen eguna, etxekoan partez.



ANDOAIN
Zorionak, Bilbi
Irailaren 20ean, hamarkada berrian sartu zara. Jarraitu beti bezain alai, jator, maitakor... izaten eta bizitzari aurre! Izugarri maite zaitugu aita / maititi! Besarkada goxo bat!



ANDOAIN
Zorionak, Aratz!
Iritsi da zai zinen eguna, 6. urtebetetzea! Primeran pasa eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ANDOAIN
Zorionak, Maddi
Aurtengoan 11 urte beteko dituzu politta, eta primeran ospatuko dugu! Muxu potoloak zuretzat, etxekoak.

Urte askuan!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Urriak 9, astelehena.

16:30-20:30.

ANDOAIN, Anbulatorioa

Hitzordua hartzeko:

943 007 884.



MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus

619 163 537 - 943 300 732



Urnietako
udala



Ikastolaren sorreran eta bilakaeran ezinbestekoak izan diren hainbat andereño "Geroak esan beza" eskultura (Gotzon Etxeberria, egilea) inauguratu zen egunean, 1988/11/13an, Andoingo Aita Larramendi ikastolak bere 25. urteurrena ospatu zuenean. Ezkerretik hasita: Arantxa Artano, Amalia Guerrero, Mari Paz Artolazabal, Mertxe Okiñena, Maria Jesus Ugalde, Arantxa Etxarrain, Maria Angeles Iriondo, Maribi Ugalde, Anparo Etxarrain, Lurdes Mercero, Miren Larrea eta Meltxor Artetxe txistularia. AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Azken agurra Maria Angeles andereñoari

Maria Angel Iriondo Maiztegi Andoingo Aita Larramendi ikastolako andereñoa izandakoa irailaren 18an hil zen, 80 urte zituela. Asteartean San Martin parrokiaren azken agurra eskaini zioten senide eta adiskideek

Xabier Lasa ANDOAIN

Iriondo Maiztegi familia berez Altzola auzokoa (Elgoibar) zen, eta 50eko hamarkadan Andoainera etorri zen bizitzera. Maria Angeles, hor alabetatik zaharrena Laborde lantegian administrazio lanetan hasi zen oso gaztetan, eta hantxe hiruzpalau urte eginda, 1974an, irakaskuntzari heldu zion, Aita Larramendi ikastolan andereño gisa, alegia.

Hitz jario onekoak, jendarte-koak, haurren heziketan trebeak, euskaltzaleak... izango ziren irakasleen premian ziren oraindik ere legez kanpo jarduten zuen ikastolek, eta Maria Angelesek berarekin zeuzkan ezaugarri horiek denak.

Horrela, Maria Angeles Iriondok Aita Larramendi ikastolan osatu zuen hezkuntza-ibilbide osoa. Ikastetxeak Andoainen han-hemenka eduki zituen etxepa guztiak ezagutu zituen, eta Rikardo Arregi kaleko haur-hezkuntzako eraikinean egin zituen azken urteak, arik eta 2002an erretiroa hartu zuen arte. Juan Otegi izan zuen senarra; Josu biren semea da.



Maria Angeles Iriondo Maiztegi. AIURRI

Goxoa eta onbera, haurrekin

Astearte arratsaldean hilera amaitu berritan, elizaurrean tertulian geratu ziren senitarteko eta lagunek Maria Angeles hizpide izan zuten. Haren ondoan bizi izandako bizipen eta pasadizoak oroitzen jardun zuten, batik bat. Bertan, makina bat izan ziren Maria Angelesen gainean zerbait adierazi ziotenak Aiurriri. Tartean, Mari Kruz Anduaga, Ana Mari Aranburu, Mari Karmen Zuaznabar, Begoña Ormazabal, Maria Luisa Etxeberria, Lurdes Jauregi, Arantxa Artano, Agurtzane Arregi eta Joxe Joakin Jauregi.

Guztiek ere bat etorri ziren Maria Angeles definitzen duten dohainak aukeratzeko orduan: pertsona onbera, eskuzabala, emankorra, langilea, alai eta grazia handikoa hizketan, trebea eta irudimentsua eskulanekin...

Azpimarratu zuten, bokazioz jardun zuen irakaskuntzan, beti haurrekin, eta gozamen hutsa izan zen lanbidea berarentzat. Pazientzia, goxotasuna eta alaitasuna omen zituen ipar, haurrekin tratuan. Eta gaineratu, haurrak bere umeak balira bezala hartzen zituela, karino handia hartzen omen ziela, "Andoainen belaunaldi mordoak ezagutu du irakasle gisa, baina ez da egongo ikasle bat ere harengatik gaziki esaka jardungo duenik".

Bere ikasle izandakoek ikastolako ikas-zikloa amaitu eta gero ere, interes berezia agertzen zuen ze ibilbide egiten ari ziren. Esate batera, bizitzako arloren batean nabarmentzen baziren, eta prentsan elkarrizketaren eta erreportajeren bat agertzen bazen, etxean gordetzen omen zituen orriak, txukun-txukun. Ziurrenera, artxibo polita utziko zuen prentsako albisteekin, etxean.



ARGINDAR

Euskaldunaren izana, gogoan

Euskalduna Andoaindarraren klubaren mendeurrena oparoa izaten ari da. Aurreko asteburuan segida eman zioten ekitaldi-sortari, iraganeko kirol atalei keinu eginez. Mendi-irteera egin zuten Euskalduna MTrekin elkarlanean, pilota saio polita Goikoplazan Gaztelekurekin batera eta saski partida ikusgarriak garai bateko jokalariren parte hartzearekin.



ARGINDAR



ARGINDAR